

## **GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN KONTSEILU ERREKTOREAK 2023KO AZAROAREN 27AN EGINDAKO BILERAREN AKTA**

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren egoitzan (Gaztelako Atea 15, Gasteiz) egin da Kontseilu Errektorearen bilera, 2023ko azaroaren 27an, 12:30ean hasita. Honako pertsonak parte hartu dute, Zoom bidez:

- Nerea Melgosa Vega andrea, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako (aurrerantzean, eLankidetzak) presidentea eta haren Kontseilu Errektoreko presidentea. Telematikoki parte hartu du.
- Batzordekidea: Mikel Hidalgo Bordegarai jauna, Berrikuntza Sozialeko Aholkularia. Telematikoki parte hartu du.
- Batzordekidea: Fernando Iturriaga jauna, Programen eta Azterlanen aholkularia, Ekonomia eta Ogasun Sailaren ordezkari gisa. Telematikoki parte hartu du.
- Batzordekidea: Jone Fernández Landa andrea, Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako zuzendaria. Telematikoki parte hartu du.
- Batzordekidea: Martín Iriberrri jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa. Telematikoki parte hartu du.
- Batzordekidea: Iñigo Eguren jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa. Telematikoki parte hartu du.
- Batzordekidea: Elsa Fuente Do-Rosario andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa. Telematikoki parte hartu du.
- Batzordekidea: Maitane Ipiñazar andrea. Giza Eskubideen, Berdintasunaren eta Justiziaren Batzordeko presidentea. Telematikoki parte hartu du.
- Batzordekidea: Diana Urrea Herrera andrea. Giza Eskubideen, Berdintasunaren eta Justiziaren Batzordeko kidea. Telematikoki parte hartu du.
- Idazkaria: Paul Ortega Etcheverry jauna, eLankidetzako zuzendaria. Telematikoki parte hartu du.

Halaber, bileran parte hartu dute Alazne Camiña andreak (eLankidetzako koordinazio teknikoaren arduraduna) eta Edurne Bengoechea andreak (eLankidetzako genero-teknikaria), gonbidapen bidez, gai-zerrendako gaiak aurkeztean laguntza teknikoa emateko.

## Sarrera

Sailburuak hartu du hitza. Ongietorria egin die parte-hartzaileei eta hasiera eman dio saioari. Honako hau da saioaren gai-zerrenda:

1. *2023ko urriaren 23an egindako azken saioko akta irakurri eta onartzea.*
2. *Kontseilu Errektoreko izendapen berriei buruzko informazioa.*
3. *UNRWarentzako zuzeneko dirulaguntza onartzea.*
4. *Genero-berdintasunaren aldeko erakunde barruko aldaketa-prozesuak sustatzeko lankidetz-erakundeei zuzendutako 2023ko laguntza-deialdiaren emakidaren ebazpenari buruzko informazioa.*
5. *% 0,5 gehigarriaren aplikazioari buruzko informazioa. 2023ko soldata-igoera.*
6. *Eskariak eta galderak.*

### **1. Aurreko saioko akta irakurri eta onartzea.**

Bileran parte hartu duten pertsonak ez dute inolako oharrik egin; hortaz, 2023ko urriaren 23ko saioko akta onartu da, bertaratutako pertsona guztien aldeko botoarekin.

### **2. Kontseilu Errektoreko izendapen berriei buruzko informazioa.**

Presidenteak eta idazkariak ongietorria egin diete Kontseilu Errektoreko kide berriei.

Parlamentuko Giza Eskubideen, Berdintasunaren eta Justiziaren Batzordearen izenean, Maitane Ipiñazar eta Diana Urrea izendatu dira, Leixuri Arrizabalagaren eta Oihana Etxebarrietaren ordeztuz, azaroaren 9an eta 13an, hurrenez hurren.

Alderdi sozialean, Olga Garciak eta Alberto Cereijok kargua utzi ondoren, azaroaren 7an Josu Urrutia eta Martin Iriberrri izendatu zituen titular gisa GGKE-en Koordinakundeak; ordeztuko gisa, berriz, Nerea Uriarte eta Iñigo Eguren izendatu zituen. GGKE-en Koordinakundekoak ez diren eragile sozialei dagokienez, Elsa Fuente izendatu zen titular, eta Zaloe Pérez ordeztuko.

### **3. UNRWarentzako zuzeneko dirulaguntza onartzea.**

Presidenteak Paul Oregari pasatu dio hitza. Hark azaldu duenez, 2023ko urriaren 10ean, Gazako Zerrendako indarkeriaren hazkundera zela eta, honakoa argitaratu zuten UNRWak: “UNRWaren larrialdi-deialdia: 90 egunetako hasierako larrialdi-erantzuna Gazako Zerrendako indarkeriaren igoerari”. Deialdiak 103,7 milioiko dolarreko balioa zuen, 500.000 pertsonari arreta emateko.

Idazkariaren hitzetan, handik hilabetera, azaroan, egoeraren larritasuna ikusita, Nazio Batuen agentziak eguneratu egin zuen deialdia eta 481 milioi dollarrera igo zuen, Gazan 1.600.000 pertsonari eta Zisjordanian 150.000 pertsonari arreta emateko. Lehenengo deialdiari 250.000 euroekin erantzun zion eLankidetzak (eta Lehendakaritzak beste 250.000 euro jarri zituen).

Kasu honetan, 117.549 euroko laguntza berri bat proposatzen da, hainbat beharrei erantzuteko: elikagaiak, osasun-materiala, aterpea, behar-beharrezko produktuen kitak eta Gazako 40.000 pertsonari babesa. Kontseilua bildu den egunean, UNRWak 155 milioi dolar jaso dituela baieztatu du (jasotako funtsen eta baieztatutako promesen artean), hau da, identifikatutako beharren % 32.

Alazne Camiñak gogoratu duenez, 2023ko soberakinetatik datoz zenbateko horiek, zuzeneko dirulaguntzetarako (ZUZ) eta genero-berdintasunerako (GBA).

Bozketa egin da eta aho batez onartu da.

### **4. Genero-berdintasunaren aldeko erakunde barruko aldaketa-prozesuak sustatzeko lankidetzak-erakundeei zuzendutako 2023ko laguntza-deialdiaren emakidaren ebazpenari buruzko informazioa.**

Jarraian, presidenteak Edurne Bengoecheari eman dio hitza. Lankidetzak-erakundeei emandako laguntza horien berri eman du hark, 2023ko ekitaldian genero-berdintasunaren aldeko erakunde barruko aldaketa-prozesuak sustatzeko, 433.000 euroko zuzkidurarekin.

Horrekin lotuta, aurten 11 proposamen onartu direla nabarmendu du, hau da, deialdira aurkeztutako guztiak. Gainera, puntuazio oso altuekin onartu dira. Erakunde berriak aurkeztu dira deialdira: Aldarte, Gernika Gogoratuz, Ingeniería Sin Fronteras, Farmaceuticos Mundi eta Ikertze. Azaldu duenez, proposamen hauek kanpoko dinamizatzaileekin gauzatzen dira. Horiek, orokorrean, urteak daramatzate prozesu horietan laguntzen. Bestetik, erakunde batzuek epe luzeko prozesuak, konpromiso maila altua eta genero-egitura instituzionalizatuak dituzte, esaterako, honakoek: Setem Hego Haizea, Zehar Errefuxiatuekin eta Paz y Solidaridad.

Amaitzeko, 2009az geroztik genero-berdintasuneko (GBA) 71 proposamen finantzatu direla nabarmendu du, 47 erakunderenak.

#### **5. % 0,5 gehigarriaren aplikazioari buruzko informazioa. 2023ko soldata-igoera.**

Presidenteak Paul Ortigari eman dio hitza. Hark azaldu duenez, igoera hori lotuta dago Kontsumo Prezioen Indize Harmonizatuaren bilakaerarekin.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2023. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 15/2022 Legearen 19. artikuluko 2. atalaren arabera, 2022. urteko Kontsumo Prezioen Indize Harmonizatuaren eta 2023ko iraileko Kontsumo Prezioen Indize Harmonizatu aurreratuaren arteko batura ehuneko 6a baino handiagoa bada, ordainsariaren igoera gehigarri bat aplikatuko da, gehienez ere ehuneko 0,5ekoa.

Amaitzeko, azaldu du Kontseiluan igoera honen berri ematearen helburu bakarra informatzea dela. Izan ere, Gobernuak dagoeneko onartu du, eta Agentziak Gobernuaren ildoari jarraitzen dio.

## 6. Eskariak eta galderak

Beste gairik proposatu ez denez, Nerea Melgosak eskerrak eman dizkie bertaratu direnei eta amaiera eman dio saioari, 12:56ean. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18.2. artikuluko lehenengo paragrafoan aurreikusitakoa betez, jakinarazten da Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen hurrengo saioan onartuko dela akta.

Oniritzia Nerea Melgosa Vega,  
eLankidetzako eta haren Kontseilu  
Errektoreko presidentea.

Paul Ortega Etcheverry  
Kontseilu Errektoreko idazkaria  
eLankidetzako zuzendaria